

**2024KO ABENDUAREN 12KO 716. ALKATETZAKO DEKRETUA**

IKUSIRIK: 2024ko Aurrekontu Orokorretan, Barrundiako udalerrian erroldatutako herritarrei euskara ikasketak garatzeagatik beken emakidaren oinarriak onartu ziren. Horiek emateko honako baldintza hauek bete behar ziren: Barrundian erroldatuta egotea eta euskara eskoletan ehuneko 75etik gorako asistentzia egiaztatzea edo, hala badagokio, HABE edo gaitasun probak egiaztatzen dituen beste edozein organismo ofizialetan matrikulatuta dagoen ikastaroa gainditu izana egiaztatzea.

Diruz lagundu beharreko ikasturtea 2023-2024 dagokionari da.

Oinarri horiek 2024ko apirilaren 08ko (40. zenbakia) Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

KONTUAN HARTUZ: Deialdia arautzen duten oinarrietako 4.2ak xedatutakoaren arabera, eskaria eta dokumentazioa 2024ko urriaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira Barrundiako Udalaren erregistro orokorrean.

GERTUA IZANIK: Enrique Marcos Rapado jaunak, epean eta era egokian, 2023-2024 ikasturteari dagokion beka eskaria aurkeztu du.

IKUSIRIK: Udaleko Hizkuntza Normalizatzailaren Teknikariak 2024ko abenduaren 11ko dataz luzatutako txostena.

KONTUAN HARTUZ: Indarrean dauden Aurrekontu Orokorretako 335.480.001 partidaren aurrekontu-zuzkidura dago.

**ZERA ERABAKITZEN DUT**

**LEHENENGOA.-** Enrique Marcos Rapado jaunari, 2023-2024 ikasturtean euskara ikasketak garatzeagatik beka luzatzea. Beka horren zenbatekoa 301,50 €takoa da.

**BIGARRENA.-** Beka berehala ordaintzea 335.480.001 partidaren pentzutan.

**HIRUGARRENA.-** Honako erabaki hau interesdunari jakinaraztea.

Alkate jaunak agin eta sinatu du, nire, jarduneko idazkariaren aurrean, eta nik horren fede ematen dut.

ALKATEAK,

JARDUNEKO IDAZKARIAK,

BENETAKO KOPIA. Egiaztatze Kode Seguruaren bidez egiaztatu daitekeena helbide honetan: / COPIA AUTÉNTICA que puede ser comprobada mediante el Código Seguro de Verificación en esta dirección: <https://udalenegotza.araba.eus/barrundia/validacionDoc?entidad=BARRUNDIA>  
Q0144708b0250c1747507e810d0c0c15y